


Bizkaitarrei Bizkaieraz

ZAR

364n. zenbakia • 2010 Urrilla



www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

Arestitxuan jaiotakoentzat



Istorioa



Antiguako Ama Birjiñaren
Koroatzearen 50. Urteurrena

Euskalerrian euskeraz EUSKERAZALEAK

2010-2011 IKASTURTEA

**BIZKAIERA 43. IKASTAROA
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

**43.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACIÓN**

Egunak: astelen, eguasten eta barikuetan edo
astearte eta eguenetan

Días: lunes, miércoles y viernes,
o martes y jueves

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Horas: Mañana, tarde y noche

Ordaña: 140 €

Curso completo: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 423 53 22
Bilbao

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 423 53 22
Bilbao

Asiera: urriaren 11an

Comienzo: 11 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (25 €) kontu onetan:

**EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
2095 0000 74 2000089615**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eigu! Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 25 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!**

Euskerazaleak

ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

Urrutizkina : 944 235 322

www.euskerazaleak.biz

Laguntzaille



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

Flash Composition, S.L. - Bilbao

www.flashcomposition.com

Arestitxuan jaiotakoentzat

Arestitxuan jaiotakoentzat, sinisgatxa da bizirik gagozala onartutea.

"Itxadon bearreko" belaunaldikoak gara. Ume ta gaztearoa etxoten igaro genduan.

Ordu bi itxadon bear igeri aurretik.

Domeketan ordu bete egon bear baraurik Jaunartu baño lenago.

Atzerantza begituz, ez zan erreza bizirik urtetea: Seireun Seat baten ibilteko erea eukanak ez eban eroaten seguridadeko-garrikorik ez eta airbagik bere. Amar-amabi orduko joan-etorri egin ostean, lau-bost lagun persona barruen eroanaz, ez eban eukiten iñolango kalterik. Ez gendun kaskorik jazten txirrinduan ibilteko orduan.



Ez genduan eukiten umentzako seguridadeko ate, araza edo ta tapoidun sendagai apartekorik.

Ez gendun ezagututen ezelango zauri edo gorputzeko biurketarik.

Astakeritan ibilli arren ez jakon iñori azurrik austen edo aginik apurtuten. Eta zeozer agertuarren be, ez zan iñor zigortuten.

Etxetik goizetik lagunekaz urten edo kalean lagunekaz batu ostean, ez gintzezan etxeratuten illuntzeko kaleko-argiak biztu arte.

Neskatan egiteko, euren atzetik korrika ibilten giñan ipurdia ikututeko asmoagaz eta ez txateko lelokerietan.

Eskolako jokaldietan, taldeak osotuten genduzan eta gure ez ebana bastarturik gelditzen zan.

Burruka gogorretan ibillita, ikasten genduan zelan amaitu bakeak eginda.

Ikasle batzuk naiko argiak ez izatearren ikastaroa barrero osatu bear eben. Ez egoan asterketa apartekorik.





Iragarri bitxiak ikusten ziran :

RUBIO.- Idazkera bertikala.

ALVAREZ.- Entziklopedia. Miño S.A. bakarria Internetetik jasotakoa lez.

ZARATAGALLUAK.- Maixua zoratuteko gai. Mugikor-polifonikoen ordezkioak.

CASTILLO.- kolorezko 12 arkatx: 16 bitsdun erakustaula.

On artu LA CASERA egizkoa.

Gozokiak janarren ez giñan lodituten. Alan da be gizen bakarren bat agertu eikean.

Danok botilla beretik edanarren ez zan kutsadunik agertzen. Iturritik bertatik edaten genduan, batzuk iturri-tutua miazkatuz.

Tebeo ta Ipuñak irakurten genduzan eta ez gaur eguneko bideo-jostalludunak.

Sugelandara ta txori eizeari ekiten geuntson ume giñala ta iñoren laguntza barik. Au barrabaskerial!

Bizitzak, Koloredunak ta Futboleko irudiak batzeko oitura genduan.

Ikusten al dozue? Orretikoagaz ikasgelako errege giñan!

Zenbat gure olango chucheak!

Nozbeinka ondartzara joaten giñan iñolango eguzki babesgai ISDIN 15 barik. Ez genduan beladunontziera, padlle edo golfea ikasteko aukerarik, baña sekulako areazko gazteluak egiteko gai giñan.

Basatekerizko arrika-guduak eginarren, ez zan iñolako kalterik. Umeen artekoa zanez, merkromina ta puntada batzukaz konpontzen ziran egindako zauriak, iñori barik norberari errua egotziz.

Makillak eskuetan, gañontzekoak ustelak...

Askatasuna, porrotak, irabaztea, erantzukizuna ikasiaz garatu giñan.

Ez arritu gaurko umeak gilipoiturik ikustez.

Zu lengoen antzeko ba zara....., zorionak !

Mezu onen barri emon egiezu era orretako umeak direnei...!

Bear bada oraindik gure semeak gure antzera azteko garaia da.

Munetxek euskeratua.

Lurraren beroketa

Kaltegarritzkoak

Dogun energia ereduak erakusten dau garapen ekonomi-koak energia ugariago gastatzera garoazala.

Kontsumoaren azkundera geraraztzea premiazko bihurtu da.

Kate ori azkar apurtu egin bear da.

Urian automobillaren erabillera ekiditeko beste bideak garatu bear dira.



Egazkiña eta automobillak

Garraioan 1975 milloi tona lez gastatzen dira, au da, energia guztiaren % 26a.

Dana dala, gure planetak nazio garatuaren garraioa mantendu dagike.

Ekialdean bidaiarien % 97ak garraioa automobillez egiten dau. Amar familietatik zortzik automobilla dabe, eta % 30ak 2 edo automobil geiago. 1973. eta 2004. urtea artean aire garraioa % 27a igo zen (eskaintzak bultzatuta), eta orrela ezin da aire garraio geiagorik jasan.

Oianak

Lurrak, zuaitzak eta landareak gure planetaren atmosferako karbonoa geldotzen dabe tamaña andi batean. Baso-soiltzeaz zati andi bat atmosferara igotzen da.

Ikerketen arabera, 2050. urterako muga gainditu eta atmosferara geiegizko karbono bialduko dabe.



Ipar eta Egoburua

XX. mende asieratik itsas maillaren igoera 17 zentimetrokoa izan da, azken 15 urteetan joera azkartu dela. Izotza urtu eta beroketak ura berotzen dauelako.

Glaziarrak itsasoan banatzen dira, eta izeberg pusketan autsita geratzen. Izeberg urte kopurua eta itsasoko ur igotzearen azkartasuna deigarria da.

2008an NCR-eko Tremberth, Fasullo eta Kiehl ikerlariak Lurraren energia zenbatu eben. 2000ko martxotik 2004ko maiatza bitarteko datuak jaso zituzten, eta 1997. urtean egindako lana eguneratu dabe. Lurraren lur-azalak Eguzkitik 161 w/m² hartzen dau, eta Lurraren beroketatik 333 w/m², guztira 494 w/m². Lurrak guztira 493 w/m² askatzen dauanez (17+80+396), 0,9 w/m² bero xurgatzen dau, aldi berean Lurra berotuz.

Agustin Oñatek//Patxi Otamendik Eusketatuta.

Aita baten aolkuak

Jackson Brown ez da pentsalari andi bat, ezta literatur Nobel saria.

Gizon arrunta da, semearen onbidez arduratzen dan gurasoa, semea urrineko Unibertsitate batera joakenean “aholku” xume batzuk idatzi eutsozana.

Semeak fotokopiatu eta ikaskideei banatu eutsezan. Ainbesteko arrakasta izan eben, ezen argitaletxe batek Browni argitalpen batek liburu gisa argitaratzeko baimena eskatu eutsola.

Andik gitxira “Zoriontasuneko Bizitza” izenburupean barriro argitaratu eta salmenta andikoa bilakatu zan, dozenaka ediziño eta liburu andana saldu eta izkuntza desbardinetara itzulia.



Zoriontsu bizi

Goiz argiari begiratu, urtean bein beintzat.

Tinko emon eskua, eta jendearen begietara begiratu.

Musika-tresneria ona euki.

Teniserako aukeratuko zeunkezan jokalaria-kideak lez aukeratu besterako partaideak: aul zaran orretan indartsua dana autatu, eta alderantziz.

Ez zaitez fidatu arropuzetaz: iñor ez da ta gainezka dauenaz arrotzen.

Gogoratu zuretzat garrantzitsu diranen urtemugak.

Alboratu ezezkor diranak; beti izango dabe aitzakia kexaka ibilteko.

Garesti ez diran autoak erabili, baña edertu zure etxea.

Ez dago sekulan bigarren aukerarik leen itxura on bat emoteko.

Ez aitatu pertsona bati bere pisua, ezta inori esan burusoiltzen ari dela. Orrein jakitun diralako.

Ez aitzu pertsonengandik geiago lortzen dala itz onakin ezten-berbakin baño.

Animatu zaitez gustuko dozun batengana irribarre utsez aurkezten eta esanez: nire izena olangoa da; ondiño aurkeztu barik nago ta.

Ez egin sekulan betetzeko ez dozun mehatxurik.

Errespetu gorena agertu, lan zamatsuenak dabebezenei.

Egin zuzen, besteek zer diñoen kontutan izan barik.

Eldu eskutik semeari aal dozun guztietan. Elduko da berak orrelangorik naiko ez dauan uea.

Jendea bere espartinetan, eta ez zeuretan, bazina lez artu kontutan. Mugatu zure naiarak zure aalmenetara.

Kontutan izan esaldi zarra: zorrak ezean, arriskurik ez.

Burubakoen galderei erantzutea da lanik zailena.

Ikasi besteekin partekatzen eta besteekiko baliagarri izatearen poza aurkituko dozu. (Zerbitzeko gai ez denak ez dau bizitzarako balio)

Betekizunak garaiz egin. Orduko izateak bestearen denborarekiko begirunea agertzen dau.

Fida zaitetz Jainkoaz, baña ez itzi autoa, giltzapean itxi barik.

Izan gogoan maitasunari eta erronka andiei, arrisku andiena jagokela.

Ez batu sekulan aberastasuna eta arrakasta.

Ez galdu sekulan umore ona eta ikasi zeure akatsez barre egiten.

Ez uste esan bako nai ori beste batek igarriko deutzunik.

Egoera erosoetan be, utzi zure seme-alaben eskuetan ikasketen zati baten ordainketa.

Atera dozuzan argazkietatik kopia biña egin eta bialdu argazkian agiri diranei.

Ez aitzu zenbaitetan erantzunik onena isiltasuna dala.

Ez alboratu ideia bat datorrenagandik gustuko ez dozulako.

Ez erosi sekulan koltxoi merkerik: bizitzaren erena bere gañean izango zara ta.

Ez erosi sekulan tresna elektrikorik eskulangintza azokan.

Esandakoa baño bi aldiz geiago entzun (orretarako emon euskuzan Jainkoak belarri bi eta ao bakarra).

Ikasi bereizten nortzuk dituzun adiskide eta nortzuk etsai.

Ez aitzu sekulan: bekaizkeria talentuari erdi-ipurdiak eskaintzen deutson omenaldia dala.

Gogoan izan zoriontasuna elmuga ez baizik bidea dela: gozatu eizu bidean zoazela.

Ez badozu arrangurarik nai, ez desiratu lortuezineko asmorik.

Jende zoriontsuenak ez dau alabearrez bere esku, daretariko onena.

Besterik barik, gozatu eizu Jainkoak zure ondoan utzi deutzun guztiaz.

Patxi Otamendik.




I storiaoa

Bein, bigarren ezkontzan ikasten nengilela, ikaskide bat bere etxerako itzulian joaten ikusi neban. Kyle zan.

Liburu guztiak eroiazan, eta nire baitari itaundu neutson: zelan leike barikuetan liburuz kargatuta etxera joatea?. "I kasnai bat" izango da. Nik astebururako asmo batzuk finkatuak dodaz. Festak eta zapatu arrastien lagunekin futbol saioa. Olan ba, bizkarra estutu eta aurrera jarraitu neban.

Bidean niñoa, mutiko talde bat beragana korrika joiala ikusi neban. Kylerengana elduaz liburu guztiak lurrera bota eutsoezan eta zango traba eginez lurrera bota eben.

Betaurrekoak airetik lurrera jauzten ikusi nebazan, bera egoanetik iru metrora. Gorantza begiratu eban eta begiradan tristura itzela antzemon neutson. Biotza uzkurto egin jatan. Azkar batean urreratu nintzan, bera betaurrekoen billa lurrean lau oiñetan ebillen eta. Begiak malkotan ebazan.



Bere anaiari betaurreko batzuk eros egiozala aginduz zera esan neutson: orreik mutiko gaiztoak dira, ez eben orrelangorik egin bear. Niri begira, erantzun eustan: eskerrak!

Aurpegian irribarre andia eukan. Esker ona agertzen daben irribarre eder orretariko. Liburuak jasotzen lagundu neutson.

Nire etxetik urrean bizi zan. Zergaitik ez genduan alkar ezetuten galdetu eta kontatu eustan eskola pribatu batetik aldatu barria zela. Nik ez neban sekulan eskola pribatuko ikaslerik ezagutu.

Etixeraiño joan giñan. Liburuak eroaten lagundu neutson. Mutiko ona zirudian. Zapatu arrastien nire lagunekin futbolean jardun nai ote eban galdetu neutson, baita onartu be. Asteburu osoa alkarrekin emon genduan. Arik eta Kyle geiago ezagutzen neban, orduan eta geiago apreziatu bai nik, bai nire lagunek.

Astelen goiza eldu zanean an genduan Kyle barriri sekulako liburu pilla batekin. Zera esan neutson: -giartsu egingo zara egunero liburu pilla ori ekar eta eroan ibiliz. Barre egin eta erdiak neuk eroan negiozala eskatu eustan.

Urrungo lau urtetan adiskide-min izan giñan. Bigarren ezkontza bukatzeko giñala, Kylek Georgetown unibertsitatera joatea erabagi eban; nik Dukera. Banekian beti adiskide izango giñala. Urruntasunak ez ginduzala aldenduko. Berak medikuntza ikasten eban eta nik administrazioa. Futbolean jarduteko beka lortu neban.

Graduazio eguna eldu zan.

Berak itzalditxua prestatua eban. Neu pozik ez nebalako itz egin bearrik. Kyle sasoitsu egoan. Bere izakeragaz bat egiñik. Bigarren ezkontzan arlo guztietan ohera egin eban. Betaurrekoekaz are obeto egoan. Neskekin nik baiño arremon andiagoa eskuratu eta danak maite eben... Alajaina! Batzuetan zelati be sentitzen nintzan!... Graduazio jaian, esaterako.

I tzaldiak urduritzen ebala oartu nintzan. Bizkarran zaplada eman neutson.

Eta zera esan neutson: Adiskide, bikain urtengo dautzu!

Esker oneko begirada andi batez, irribarre egiñez zera erantzun eustan: Eskerrak!

Eztarria arinduz, itzalditxua asi eban:

Graduazioa une ona da urte zail auetan lagundu gaituen guztiak eskertzeko: gurasoak, irakasleak, anai-arrabak, entrenatzailleren bat, baiña batez be adiskideak.

Emendik esan gure deutzuet adiskide bat izatea jaso bezain emon geinken oparirik onena dela. Ari orri elduz, istorio bat kontatuko deutzuet.

Arrituta begiratzen neutzonezagutu giñan eguna kontatzen asi zala konturatzean. Asteburu artan bere buruaz beste egiteko asmoa omen eban.

Armairua garbitu ebalaa kontatu eban eta zergaitik liburu guztiak etxera eroan euzan, gero amak eskolara euren billa joan bearrik izan ez zezan.

Aurrez aurre begiratu, irribarre egiten eustan.

Zorionez norbaitek salbatu ninduan. Konponbiderik bako egitetik adiskideak libratu ninduan.

Arrituta nengoan entzuten zelan mutil dotore ark bere auldade uea kontatzen eban. Bere gurasoak begiratzen ninduen eta esker onez irribarre berbera eskaintzen eustien. Orduan oartu nintzan esaten ebanaren sakontasunaz:

Ez gutxietsi sekulan zure ekintzen garrantzia: keinu txiki batez, beste pertsona baten bizitza aldatu geinke, onerako zein txarrerako. Jainkoak jartzen gaitu besteen bizitza aurrean, zerbaitetan eragiteko.

Ona elduta, aukera bi dituzu: mezua adiskideei bidali ala ezabatu eta zure biotza ikitu izan ez baleu lez jarraitu.

Nik lenengoa aukeratu dot. Egaletan arazoak doguzanean besoetan eroaten gaituen aingeru antzeko dira adiskideak,

egan egiten zelan jarraitu oroitarazten gaituenak.


Astirik badozu, emon minutu bi adiskideei e-mail au bidaduten. Merezi dau.

Ez aitzu sekulan...

Badira euren poza eta onberatasunagaz besteen bizitzak argitzen dabezenak, eta ori balio andikoa da.

Birbidali benetan maite dituzunei.

Antiguako Ama Birjiñaren Koroatzearen 50. Urteurrena



Lekitxoko ANDRA MARIRI, 2010garren urtean Ekaiña

Maria, Amabirjiña, Andra Mari, Jesusen Ama, Antiguako Ama, Itsasoko izarra, Gaixoen Aterpea, Umetxoan Biotzekoa, Ama barrien benatako atsegiña, il zorian dagozanen Itxaropena, Pekatari eta Galduen Ieslekua, Gizon guztien Ama, Eleizaren Ama, Abadeen laguntzaille andiena, Kristauen sustengo paregabea.... zenbat misio betetzen dau-

en geure Ama birjiñak, ez dau inork barbarik ori adierazteko!

Zenbat Agur Mari egunero, gauero, millaka jenden ezpanetan, izkuntza guztietan, bakardadean edo alkarregaz abestua.

Geure bizitzako gertakari illunetan. Or dago Maria bere irriparregaz; gaixoaldian edo atesuan dagozanakaz, bere Semearen gurutzepean egon

zan modura, biotza oiñazez urratuta, danen duin, maitagarri, esperantzagarri.

Geure gertakari alaietan, erriko jaietan, etxeetako bautixo, eskontza, jaun artze eta zorionaldietan or dago Maria Izpiritu Santuz betea. Berak dauzku erakusten zelan eskerrak emon geure biotzean sentitzen dogun Jesus Piztuaren presentzia gaitik. **MAGNIFICAT** abestuz, zelan bizi zerbitzari apal modura.

Au dala edo bestea dala, Eleizak daukan gorabera erdian ez da errez kristautasunean irautea. Otoiz egiñez beste modu batean dira ikusten gauzak. Mariak ekaintzen dauzku begirada baikor bat. Maria emen dago, Eleizaren erdian, lenengoko Mendekosteko Eleizan egoan modura bai Jerusalemen bai Efesoko errian Juan apostoluakin. Gauzak orain baiño askoz okerrago egozan. Or egoan Maria, Ama baten lez, bere maitasuna erakusten bakoitzari. Maria,

gaurko eta eukaristi guztien otoitzaren erdian dago. Jesusen bakea dauzku erakusten eta emoten. Gaurko Eleizak, Jesusen mezuaren jarraile izateko, or dauka altxor baten pare Mariaren Amatasuna. Irakasten dauzku alkar bizitzen elgertasun egille dalako. Desbardiñak gara: batzuk fede andikoak, besteak apalagoak, batzuk emonkorrak, besteak berekoiak, batzuk idea batekoak besteak alderantziz: baiña Maria danok gaitu maitatzen, laguntzen, biltzen bere altzoan.

Lekeitioko
Andra Mari



Basilika eder onetan asten dira gaur, esker onezko otoitzak bai eta galdekizun otoitzak geroari begira. Iru esperientzi nai neuke zuekaz partekatu.

Lenengoa itsasgizonen eta arrantzale etxeetan dagon zaletasun sakona Antiguako Amari buruz. Ez daukat aztutekoa zelan Almeriako portuan San Andres egunian, oin dala 24 urte, egalaburrak des-

karga ta gero, zelan kaian bertan meza bat emon

neban, neukan mariñel arropagaz, maonez

jantziagaz, Lekitxoko eta Bermioko lagunen artian. Amieran, Lekitxoko

Salbia abestu genduan. Zenbat

malko jausten ziren begietatik,

zenbat biotz emozioz estuta!

Danok geunkagun biotzian

Ama bardiña,

itxasoan ito, desargertu diran

guztien Ama. 25 urte narabil

itsas pastoraltzan eta gaur

eskerrak emon nai dotzadaz

Itsasoko Amari, berak lagundu

nauelako etengabe, beti arrosariuari lotuta.

Bigarren esperientzi bat. Geure

Ama, ta Carmen Solano, geure

izekoak, gerra denporan eta

ondotik, maite izan dabena

Eleiza onetatik urrun egozan,

baña beti or egozan otoizka

Antiguako Amari. Maria

bere izan zan errefuxiatu

ama bat Egipton. Geure

Aitxita Carlosek kua-

druak pinttaten ebazan

erakusteko Mariaren

Biotzetik sortzen zan

zeru garbi eta berua,

naiz eta egoera

illun egon.

A z k e n e a n

geure Aita,

Juan Manuel,

bizirik urten

zanian Due-

sotik, kartzelatik,



eriotzeko kondena bategaz bizkar ganian, juan zan Halsoutik (Lapurdi) Lurdesera eskerrak emotera eta gudari illengaitik erresatzera. Beste batzuekaz, Lurdeseko lagunaldia altxatu eben, gaisoak eta el-barrituak Mariarengana eruateko. Lurdesen Mariak bere Biotza zabaltzen dautsie beregana doazen beilari eta otoizlari guztiori.

Gaur Lekitxar eta inguruko maiteok, Bakearen AMA otoitztu deigun bakearen gudariak zutitu daitezcan. Ez deien ez gorrotoak, ez gogorkeriak, ez zuzenkontrako indarrak, azken itza izan. Mariaren antzera eskuak utsik, burua xut eta duin, biotza bero, zerbitzari jantziagaz soñian, ibil gaitezen geu bere bai, Jesusen Piztuaren bidetik. Antiguako Amak lagun daigula, guztiekaz batera, bakezko gizarte bat eraikitzen, asteko geure etxeetan, erri onetan, Bizkaia, Euskal Erri osoan eta munduan zear.

Eraiki deigun alkarrez gaurko Eleiza MARIAREN irriparra gureganatuz. Millesker danok biltzegatik, emengo apaizak biltzegatik. Zorionak Lekitxoko Andra Mariri, gure Antiguako Ama kuttunari, emen gagozan bere seme ta alaba guztiori.



Mikel Epalza





Bakioko Toponimia-I

Zer da toponimia?

Leku-izenen jatorria eta esangurea ikertutea da toponimia. Beste alde batetik, leku eta sasoi jakineko leku-izenen moltsoa be bada toponimia.

Toponimoak gure kultura ondarearen oinarritzko osogarriak dira. Ingurunearen lekukoak ez eze, gure arbasoen berbeta, ekandu eta bizikeren lekukoak be badira. Ingurunearen giza-estalgitzat jo geinkez. Askotan, gizaldietan bizitako jazokera eta siniskerak (gomutapen istorikoa) igordita dagoz. Alan bada, izadia (lurrazala) zein giza-artuemonak bideratutako bizimoduagaz zerikusi arteza dauke. Euskalerrian ugari be ugari dira. Euskerearen ondasun eta altxorraren alderdietariko bat egiten dabe. Arbasoak geuri itzita. Aberastasun bakarra da, bakuna, daukazan ezaugarriak daukazala.

Bakiok, kasu onetan, edota beste edozein errik be, munduan berak baino ez daukana, beraren langorik inon ez dagoan Toponimia. Izan be, toponimoak inguru geografiko jakin bateko agozkotasunaren emoi artezak dira, geure kasuan euskalkiaren emoi artezak. Eta euskalkiak euskerearen errealidade, istoria, askotasun eta jatortasuna gorde egiten dabez. Euskerearen mundu sinbolikoa, atan be.

Bakioren ganeko zertzeladak.

Bakio Uribealdeko eleizatea izan da. Udalerriak 16,8 km²-ko azalerea dauka, bertan, apur gorabeerra, 2.300 biztanle egonkor dagozala (2010). Bakiogazko muga Bizkaiko itsasoa iparraldean, Bermeo sortaldean, Mungia egoaldean, Mungia eta Jatabe sartaldean dagoz. Luzeran 6 km-ko itsasertza dauko Bakiok, bertan 982 m-ko aretzea eta **Gaztelugatxeko** biotopo babestutako ingurua dagozala. Bakio inguruan dagozan mendiak **Burgoa, Garbola, Tallu** eta **Jata** dira. Udalerriko auzo istorikoak, bestetik: **Artzalde, Goitisolalde, Elexalde, Urkitzaurrealde, Zubiaurrealde, Gibelortzagako San Pelaio**. Bertakotzat artu leitekezan abizenak: **Artetxe, Azeretxo, Barturen, Benguria, Elexpuru, Erreterria, Gabantxo, Garai, Gaubeka, Jauregi-zar, Lorra, Ormatza, Ugalde, Uriarte, ...**

Euskaldunen kopurua %50ekoa da, ia euskaldunak %15a, erdaldunak %35a. Azkenengo 10 urte oneetan ia 1000 bizilagun geiago etorri dira errira, geien-geienak erdaldunak, euskaldunen kopuruari beerantza egin eraginez. Bizitoki eta turismo gune biurtu da Bakio, udan 18.000 biztanle (udatiarrak-aretzea) egoteragino, geien-geienak be erdaldunak.

Lurgintzak badauka euki zeozelango lebarik erriko ekonomian, batez be, txakolin-maastiak eta ortu-aria dirala-eta, baia, leengo sasoiaren aldean txikerra. Ostera, zerbitzu arloa nagusi da gure errian.

**Bakio, bilbotarren
diruari dantza dagio.**

Bertako berbetea bizkaiera da, sartaldeko bizkaieraren barruan, Plentziako aldaerea deritxonaren barruan sartuten izan da.

**Bakio, aparta akio,
aal baakio;
lapa-salda dario.**

**Erriko toponimia batuteko
elburuak.**

Zergaitik? Bakio erriko euskalduna da. Euskaldun nortasuna berezkoa izan da bertan. Nortasun ori jagon bear eta jagon egin gura dogu. Toponimiari eutsi eta bera jagon ezkeran, berezko nortasun ori indartuko da, igaroaren lekukoak aurrerantzean be bizirik iraun daian.

Gizaldietako bilakaera istorikoak eragindako okerkeriak arteztu bear dira. Jatorrizko leku-izenak atzera eskuratuaz batera, kolonizazioak (administrazio arrotza) ekarritakoak errotik kendu gura doguz, akulturizazio eta asimilazio prozesuari galgea sartu aal izateko. Ainbat eta ainbat dira, zentzubakokeria edo ezjakinkeria dirala eta, itxuraldatu zein errotik ezabatuta dagozan benetako toponimoak.

Erdaldunen (udatien) eragin erdalzaleak eragin deuto nortasun orreri, kalterako eragin be. Eragin laskin (agozkoa zein idatzizkoa) ori lotu bear dogu: Alto de Baquio (**Landabarrena**), Peñas Rojas (**Axkorriak**), El Barranco del Infierno (**Zarraga**), Fuente Helada (**Buztindiko iturria**), La Fuente de la Capilla (**Makatzeko iturria**), La Isla de los Conejos (**Aketxe**), El Calero (**Karabia**),

El Cabo (**Birjilandape**), Los Canales (**Ortutxu**), Eneperi (**Urizarretako landea**) (dagonilaren 31-Mungialdean), ...

Azentu eta agoskera: Játa / **Jatá-dxatá**, Báquio / **Bakió-bakidxó**, ...

Alandaze, askotan erabilten diran idazkera, agoskera, azentu eta joskera arrotzak baztertu egin bear dira. Eta berezkoari eutsi, au da, euskerazkoari.

Galdu baino leen batu bearreko arloa izan da eta bada (zaarrak, baserritarrak). Alan bada, batez be agozko toponimia batzea erabagi genduan 2000. urtean, aalik eta informaziozko zabalena, atan be. Gazterik geienak arean gitxi edo tutik be ez dakie arlo orretan. Bertan transmisioa be lotu egin da. Bakion ez eze, Euskalerrri osoan be egoera bardin-tsu dagoalakoa daukagu.

Zertarako? Geure-geureak diran leku-izenok geurean euskeraz erabili bear dira, euskerearenak diralako.

Leku-izen bakotxaren agozko eta idatzizko aldaerak batu, euren artean izen normaldua aukeratu-teko. Leku-izen baten agozko eta idatzizko izenak sarritan ezberdinak izaten dira.


Toponimoak batu ostean, normaldu eta ofizialdu bear dira (berbakuntzearen normalizazio geografikoa).

Elburu praktikoa-didaktikoa: normalizazio administratiboa, erriko eskolea, liburua, CD-ROMa, mapak... Informazio ori ez galtzea.

Erabilera praktikoa: kanpo zein barruko seinalizazioa (bideetako iragarriak), agiri-idatziak, mapak, testu-liburuak (erriko eskolea), edabideak, ...

Berbakuntza elburuak: agoskera, azentua, etxeok darabilezan deiturak, erriko euskera ikertutea, ... berbeta transmisioari eutsi aal izateko, azken baten.

Agozko erabilera ez galduteko (fonetika, fonologia): **Karabia / kárabidxe** (kare+obia), ... Orregaitik grabaketak egitea, gero informazio ori CD-ROM formatuan ataratu, orren garrantzizkoa izaten da.



Zerbatu? Toponimia nagusia: itsasoa, erriaren izena (Bakio), albo-errien izenak, mendiak, inguruak, erreka nagusiak, ugarteak, auzoak, bide nagusiak, mendi-lepoak, trokak, aretzea, ...

Toponimia txikia : etxeak, soloak, basoak, adar-errekak, iturriak, bideak, tokiak, sakostak, atxak, itsasoko atxak, kurutzeak, mailadiak, zubiak, arrobiak, atxuloak, errotak, olak, eleizak, baseleizak, ugarte txikiak, urtokiak, ...

(oronimia, idronimia, fitonimia, zoonimia, oikonimia, agionimia...)

Toponimia batu ez eze, toponimia bera kokatu be egin bear da, ezin egin leiteke bear au gitxi gorabeeraka, toponimia gauza zeatza da eta.

Metodologia.

Agozko Toponimia. 2000. urteko irailean asi gintzazan bear onegaz, agozko toponimia batuten, Iñaki Gaminde taldeko buru zala, Ester Elgoibar, Ander Olalde eta laurok. Taldean egindako bearra izan zan, bada.

Alkarrizketak egiteko, laguntza eran, bear ziran: argazkiak, planoak, mapak, barriemoileak.

Etxearen izenetik asi eta albokoetara, auzokoetara, beste auzoetara igaroten gintzazan: etxeko soloak, auzokoenak, inguruak, errekek, mendiak, ... Izenak argazki edo mapetan kokatuten genduzan.

Barriemoilearen perfila: aalik eta zaarrena, baserritarra, andrazko zein gizonezkoa, euskeraz alfabetatu bakoa bazan obeto (esaterako, Jesusa Ormaza - Otsategikoa: etxeko soloa ez zan solo bat berak azkenengoz eraitakoa, orregaitik ekian berak, Jesusak, solo aren izena).

Barriemoilearen zertzeladak: izen-abizenak, urteak, nongoa (etxea), aita-amak nongoak (erria, etxea). Barriemoilearen argazkia.

Non: Bakion bertan batez be, nozoz be alboerrietara (Mungia, Bermeora eta Bilbora) joan bear izan genduan arren. Etxe guztietara joan bear izatea (norberaren soloak bakarrik jakin). Or ikusi genduan barriemoile asko eta askoren mugea. "Eragin esparrua" esan izan geuntsan orreri. Toponimia txikerrari jagokonez, kontuan artuteko arazoa da. Toponimia nagusian be arazoa agertuten da. Aitatutako eremu orretatik kanpo barriemoileak nekez eta zeartasun barik jakin eta kokatu leikeez leku-izenak.

Noz: Astean bein. Egunean 3 edo 4 alkarrizketa, ordu betekoak. Urte bete eta iru ilabeteko bearra (≈120 alkarrizketa) izan zan. Grabazinoak egin zein aldi beratan agozkoa idatzizko informazioa be batuten ibili gintzazan (3 lagun).

Digitalizazioa (Iñaki Gamindek). Itaunketarik geienak grabatuak izan ziran. Orretarako Mini-disc deritxon grabagailua erabili genduan, kanpoko mikrofono bategaz. Au da, grabazino guztiak digitalak izan ziran. Gero, grabatutako materiala irauli egin zan ordenagailura COOL Edit Pro deritxon soinu editorearen bidez. Material ori CDetan gordeta dogu. Transkripzioak egiteko Bilboko Ingeniaritza Eskoleak garatutako AHOT aztergailua erabili genduan.

Idatzizko Toponimia. Idatziz dagoana batutea: planoak, mapak, liburuak, jaubego paperak, agiritegiak (Eleizearena, udalenak, Foru Aldundiarena, ofizialak, kartografia arlokoak, bibliografia, ...), agiriak, toponimia arlokoak, ... (lagun bakarra ibili da). Bear luze, sakon eta arean gogaikarria dalako, eroapen andia eskatuten dau. Arlo onetan ez genduan orduan, asikeretan, lar sakondu, leenengo-leenengo agozkoa batutea elburu nagusizat euki gendualako. Toponimia idatzia batuteari gerogarranean ekin geuntsan (lagun bakarrak), sakon eta etenbarik 2002. urtetik aurrera (eta daborduko amaitu barik dago). Izan be, bear-bearrezkoa da arlo ori be jorratutea, toponimiaren ganeko ikuspegi zabala edo osoa euki aal izateko.

Alan bada, orain artean, idatzizko toponimia batuteko urrengo agiritegietan egin dogu bear urteotan, bearra eurotan oraindikarren amaitu barik badago be:

Bakioko Udal Agiritegia	(BAUA)
Bermeoko Udal Agiritegia	(BEUA)
Bizkaiko Foru Aldundiaren Agiritegia	(BFAA)
Bizkaiko Eleizearen Historia Agiritegia	(BEHA)
Bizkaiko Agiritegi Historiko Probintziala	(BAHP)
Gernikako Jaubetza Erregistroa	(GJE)

Euskalerriko eta Euskalerritik kanpoko beste agiritegi batzuetara joatea eta an ikerlana egitea be aurreikusitako dogu.

Datuak batu eta gero, informazioa eratu, atondu eta kokatu egin bear da (mapak, toponimia arloak, liburua, CD-ROMa...). Batutako toponimiaren txostena eta mapa batzuk egin genduzan Udalari

eta Euskaltzaindiari aurkeztuteko, erriko toponimiaren normalizazioari begira, jakina. Alan bada, Bakioko kale-izendegia (inozkorik leenengoa) egiteko, batez be, erriko toponimian oinarritu zan (2005). Ori baino leenago, Inaki Gamindek, CD-ROM formatuan, Bakioko toponimiaren ganeko material didaktikoa atondu eban erriko eskolan erabilteko.

Arazoak, oztopoak.

Eskrituretako eta bestelango agirietako leku-izenen transkripzio txarraren ondorioa (eskribau erdaldunak, idazkera txarra): izen desitxuratuak. Gizaldi askotako gatxa izan da. Administrazio euskaldunik ezaren argibide garbia. Kolonizazioaren ondorioa eta bidea, aldi beratan.

Leku-izen askoren itxuragaltze ori eskuz idatzitako agirien kaligrafia txarra edota ulergatxa dala-eta dator. Idatzi be, XX. gizaldira arte eskuz idazten ziran jaubego eta osterantzeko agiriak be. Au berau eta arteragokoan aitatutako eskribau erdaldun edo erdaldunduak sortutako naastea izan dira leku-izen askoren itxuragaltzearen errudunak. Adibide batzuk aitatutearren:

Artechebanda	→	Artetxelanda
Asteneca	→	Arterreka
Astocillo	→	Artezillaga
Ozagas	→	Oiaga
Solorragosi	→	Solonagosi

Udal administrazioaren urte askoko itzikeria: aurreko gizaldiko 5. amarkadako jaubeen zerrendea, oraindikarren, eguneratu barik dago. Erriko parzelazioa jaubeen izenen arabera eginda dago, baina lurren izenak kontuan artu barik. Lurrak saldu-erosikeran, geien-geienetan, ez dira lurren izenak aitatuten, alan bada, askotan be, ezta saltailearen jaubego paperak aurkezten.

Erriko lur asko Aldundi edota Udalarena da (errilurrak, erri-basoak). Udala erriko lurren jaubeen artean andienetarikoa izanda, udalak ez daki ze izen dauken berarenak diran lur guzti orreek, artxiboaren zati andia orain dala ogei urteko urioletan galdu zalako, aurki.

Katastroa guztiz naastuta dago. Lurrak saldu eta saldu, azkenean, lur orreen izenak galduz joan dira. Sarritan lurren deskripzioa baino ez da egiten, euren izenak aiatatu barik. Lur-saila bat beste txi-

kiago batzuetan zatituten danean, esate baterako. Aldundiaren mapak bata besteagaz batera etorri ez, mapa baterik bestera agiriko alde eta oker andiak dagoz (“apur gorabeerako” eskalak).

Leku-izenak kokatu egin bear dira (mapak, argazkiak). Askotan arazoak egon dira toponimoen benetako lekua zein dan jakiteko (basoak), au da, leku-izena beraren lekuan kokatuteko. Barriemoileen ezbaia ortxe zerikusia euki dabe. Batzuetan, barriemoileen adinak eraginda, arazoak izan genduzan lekui-zenak argazki edo mapetan bear dan lekuan iminteko (ikusmen urria, mapak erabilteko oiturarik eza, ...).

Etxe batzuk utsik egozan eta ezin izan genduan or barriemoilerik idoro. Alan bada, or agozko datuak batzerik ez zan egon. Bizimoduaren aldaketa sakona dala eta (orain dala 40 urte azkenengoa), ondorio lazgarria.

Barriemoile batzuen ezjakintasuna, kulturarik eza, zekenkeria, konfiantzarik eza (“bazatoze bakez?”), udalagazko asarre bizia, ... dirala eta, ezin izan genduan euretatik ezer andirik be lortu (Esan bear da, baia, olango 4 kasu baino ez zirala izan).

Onetan, aiatatu bear da batez be, Bakioko Udalak erabili dauan eta darabilan urigintza politikea dala eta, etxe askotan asikerako deskonfiantza (beginorkeria) eta bildurra goitu bear izan genduzala, gero ondo be ondo esan baeuskuen be. Egia biribila bada, errian asko eta asko bape bat ez datozana Udalagaz arlo orretan. Orrek zer pentsaurik eragin bearko leuskio bateri baino geiagori.

Iniaki MARTIARTU
2010eko martia



Olerki - Txirlorak



Amaren magalean (Neska mirabeak amestua)

-I zen txito polita
 Al ZEA dozuna,
 batzutan indartsua,
 noizbaten leguna.
 Oratu eziña zara
 ikusten eztana,
 zure faltan ez dago
 baizik itomena,
 aitortzendot zarala
 Mezulari ona.

Mezulari bikaña,
 fin eta trebea,
 besarkatuaz bardin
 mendigoi ta bea.
 Leku danetan dozu
 eginda bidea,
 arnasagaz bizkortuz
 munduko etxea,
 eskeinduaz danori
 zorion bidea.

Ume naz ta urrin nago
 atzerri tristean,
 morrontza bakartian,
 era gogorrean.
 Lotu nire mezua
 zure egaletan,
 joan zaitetz beingoan
 egan zuzenean,
 geratu zaitetz arren,
 nire etxeko atean.

Sartu eta barruan,
 itxura ederrean
 ama topeuko dozu
 begien aurrean.
 Esaiozu, gozotxu,
 nagola ametsetan,
 egunez nekean ta
 gaubez loaldian,
 umetxu lez gozatzen,
 bere magalean.

Munetxek
 (Bil.10.03.21)

olerkia

Olerki-Txirlorak



RAFA -10.03.26
(Lagun bat zorionduz)

Sarritan entzun neban
Bilbaon ba zala
fabrika andi batean
kezulo itzela.
Kea gora ta gora,
batzutan zabala,
Begoña estaltzeraño,
au bai tamala,
baña biurtuz gero,
urregorri-ola.

Urreak egiten dau
bizitza barria,
gizon askorentzako
zorion bidea.
Zorionduz etxea,
bai ta familia,
muño txiki batetik
egiñez mendia,
alantxe dogu Bilbao
xume eta andia.

Apala eta andia,
munduan bakarra,
betieran daukana
sartuta susterra.
Jainko alorodunak,
izanez xamurra,
eskua emon eutson
eskeñiz altxorra:
berberak erakutsiz
euskera ederra.

Lautan ospatzen dozu,
Rafa,gaurko eguna:
Aurrena, amak Bilbaon,
erditu zinduna.
Urrengoan eleizan
ipiñita izena,
adinduz geroago
Mixiolari lana,
azkenean zeruan
asiko dozuna.

Opa deutzudaz, Rafa,
zorion ugari,
berrogeitamar urte
bete barriari.
Zelanbaiten zara ta
txanponen nagusi,
goiaingeru Rafael
bekizu gidari,
azken trukez dagizun
zerua irabazi.

Klaudiok
BilBO. 2.010-03-26

olerkia

Urte guztietan lez, aurten be Euskerazaleak Alkartean ospatuko da.

- 2010-11-22.- Pablo ATUTXA
- 2010-11-23.- Angel LARREA
- 2010-11-24.- Jose M^a ETXEBARRIA
- 2010-11-25.- Claudio BARROETA
- 2010-11-26.- Pablo ATUTXA

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGAITIK

Tokia: Colon de Larreategi – 14 - 2^a esk.

Ordua: Zazpita erdietan

EUSKERAZALEAK



IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEAK, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariaketa iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearke dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZAK argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER-en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN etxean (Bilbaoko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer-en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a	300 euro	4. ^a	120 euro
2. ^a	240 euro	5. ^a	60 euro
3. ^a	180 euro		
- Ipuiak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.
- Mesedez bialdu CD edo disketea

EUSKERAZALEAK

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... tar

..... kalean (auzoan..... zenbakian

..... errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,

an daukadan zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

Boga, boga
mariñela
mariñela
joan behar degu
urrutira
urrutira
bai Indietara,
bai Indietara.
Ez det,
ez det,
ez det,
nik ikusiko
zure kai ederra
kai ederra
Agur,
agur,
agur,
Ondarroako
itsas
itsaso bazterra,
itsas
itsaso bazterra.
Mariñela,
mariñela,
boga!
mariñela.

A photograph of a lighthouse situated on a rocky cliff overlooking the ocean. The lighthouse is a white, cylindrical structure with a lantern room on top. It is surrounded by a white building with arched windows. The cliff is covered in green vegetation, and the ocean is visible in the background.

Lekeitioko itsasargia